



A.T.V.
596


ANTONIO DE TRUEBA
ETXE-KALTE




MAÑAZKI-EGILEA
BEASKOETXEA'TAR ARSENI

EUSKARATZALEA
AÑUTZA'TAR MIKEL
(Añugain)







M - 4027
R - 588

A.T.V.
596




ETXE - KALTE


EUSKARATZALEA

A²RUTZA'TAR MIKEL

(A²RUGAIN)



BILBO'N
VERDES ATXRIKA'REN IRARGUAN
CORREO KALBA
1934'g²fko, urtean




NIRE SEMERIK ZAAÑENARI

*Xabiertxo, artu egizu aitaren
eskutiko bezuza txikar auxa, ta
izan zaitez bizitza osoan, gogoz
ta izkuntzaz, gaur artean zarean
lango euskaldun uts-utsa.*

Egilea.

*Bilbo 'n, 1934' gañen urteko
urte-bañi egunean.*



ETXE - KALTE

*(Trueba'tar Antóni jaunak erderaz
egiñiriko «El Judas de la Casa» deri-
txon ipuña, euskeraz yaña).*

I

Erdu, ene maitea, erdu nirekin batera; yañaitu niri adi-
meneko, sentzuneko, begiakaz, Kadagua deritxon éreka edeñaren
ibañetara; euren txukuntasunaz éreka apartsu, otz, garden
ori, geyen arotu, ta edertoen yantzi daroen ibañetara. Bere
yayotza-lekua dan Mena izeneko arana atzean lagaten daben
tokitik asi, ta, Jaungoikoa'k, bere sortze-leku ori uzteko
daroan iraduaren zigorkadatzat, Ibaizabal deritxon ibai an-
diak iruntsi dagian aginduta daukan lekuraño, bost legoako
bidea ortxe-antxe egin daroa, aitaturiko éreka oñek.

Erdu nirekin adimenagaz, Gueñes deritxon uriraño; auxe
da ba, Bizkai'ko Enkartzaziñoetako urien artean politenetariko
bat, eta berau aukeratu dot nire ipuin mingoitsenetariko
baten ager-lekutzat; ipuin samiña benetan au, eta beraz ilu-
nenetarikoa.

Araneko sakonunetik, an doa, íra, íra ta íra, txerének
berekin daroan arima galduaren antzera, Kadagua éreka ur-
duria, ta bere ipar ta ego aldeetatik, mendi yagi-yagiak agiri
dira; mendi oñetan, or-an-emen sakabanatuta, gaztain ta areitz
arteko kerizpe gozotxoan, basetxe zuri batzuk agertu doaz.

Andra Mari Eleizaren gain aldean, eta *somoetara* (1), mendi yagietara igoteko bearko litzakezan malen antzera agertzen direan alagañen arteko baten, gizaldi onen lenengo urteetan (2), Etxe-Edeñá izeneko basetxe bat egoan.

Benetan izen egokia eukan izan bere, basetxe onek euskeraz; ba, etxea, ta bere alderdi ta inguru guzti-guztiak, txukuntasunez ta edertasunez yantzirik agertzen zirean.

Etxetxo ori, edur-mukil baten itxuraz, mendiz ta basoz inguraturik, intxaur ta kereiza artean, tente-tente ta aro-aro agiri zan; ta bere oste aldean, ondo gobernauriko lur-arlo andiak ikusi eitekezan.

Maaspara edeñak ikusten zirean lurlan guztiaren inguruan, alboko sakosta edo troka osoa bañu aldetik zearkafuten ebelarik, eta madari ta sagar arbolazko leñoz yantzirik, lur arloen arteko surgu edo muga guztiak.

Ezin egon eitekean bada, Etxe-Edeñá basetxea, paraje edo toki polit eta alayagoan; etxeko leyoetatik, arbola oriak eta abafak uzten zituen irikitu edo bitarteetatik, aitaturiko Kadagua erekearen ertz biak, bide luzetxoan agiri-zirean, eta bai ta, mendi yagietatik beera, somoetatik ibaíerantza, intxaur ta kereiza artetik, iraka ta txirioka, beti zidaña baizen garbi ta eduña baizen otz kriskitinka etoñan erekastoa bere, bertotik agiri zan.

Bagilen azkenengo agunak zirean; Etxe-Edeñan bizi zirean lagunak, añasti berandutxoan, etxearen alboko landan, otzarakada bi kereiza batzean ibiltzan.

— Kontuz ibili gero, Inaki, ortik yausi barik; mundu guztiko kereizak baño askozaz geyago balio dozu zuk eta — ,

(1) Somoak. Los somos. Izen auxa emoten dautse alderdi orietan mendi yagiei.

(2) Trueba'k XIX gizaldiaren azkenengo urteetan idatzi eban ipuintxo au.

zirautsan emakuma urtetsu batek, berari zimeratxo bat kereiza emoteko, lantzean bein, arbolan, adafik-adar ta kimurik-kimu beerantza etoñan amasei urte inguruko gazte masal bateri.

— Ez bei nire ardurarik izan, ama, ondotxo dakidaz bideok eta —, erantzun eutsan mutil gazteak andreari.

— Ene semea, komediantekerietan ibilteko alagalakoa izango zinakez zu gero.

Emakumeak, mutil gaztea luzatu eutsan zimeratxoa artu, ta bertoko kereiza gofiak, arbola azpian agiri zan otzara azitxo batera utsitu zituan.

— Gira, erdu beera —, gañeratu eutsan — gure otzarea beterik dago, ta zure aita ta anayeak bere, eurena betetu dabe aurki.

Zapart baten etoñi zan mutil gaztea arbolatik luñera.

Berau baño lau edo bospat urte zaañago emoten eban beste mutil gazte bat yasten zan luñera lipar atantxe, alboko beste kereiza arbola batetik. Kereizondo oñen azpi aldean gizon zaartxo bat egoan zutunik.

Bakotxak bere aldetik kereiza otzareari oratu, ta lagun bi oneik, len aitaturiko beste lagun biakana zuzendu zirean, eta eurekin batu ziran.

Gerotxoago laurok yesañi zirean kereiza arbolen azpian atseden apuñen bat artzean.

Agureak, yakearen kanpo aldeko sakeletik, ugal batekin estuta erabilten eban txakur-nañuzko poltsea atara eban. Ugalak egal baten, azuñezko eztena eukan. Askatu eban poltsa au, ta bertotik, igeltsozko pipa zuria atara, ta espanetara eroan eban.

Aitatu ditugun mutiletarik zaañenak bere, agureak egin ebana bera, egin eban.

— Batxi, pipakada batentzako lagin tabakoñi ekazu, nik ez daukat arean eta — esan eutsan agureak bere semerik

zaařenari, eskuan eukan poltsea alpeñik arakatuta gero.

— Aita, nik bere ez daukat arean geyago — yardetsi eutsan Batxi'k, bere pipea tabakoñiz ondo betetakoa.

— ¡Guzurti oril! ¡Alango guzurti zaar ori! — egin eutsan Iñaki'k guztiz asaíe, bere anayeari. — ¿Ez neutzun nik ekañi atzo Bilbo'tik libelauren tabakoñi ala?

— Zu beti izango zara bañitsua!

— Ta zu bañiz, ¡beti izango zara zerekoya!

— Nai dodalako; tabakoñia bear dabenak erostea baño ez dauko.

— ¿Lotsarik ez daukazu; lotsarik?

— Itxiozu, Iñaki — esan eutsan agureak semerik gazteenari, bere pipea, biotz naigabez beterik atzera sakelean gordeten eban artean. — Itxiozu, onezkero ondotxo dakigu etxeko guztiok zure anayearen bañi, ta ez daukagu ezetariko itxaropenik beronegaz.

— Martin — egin eban emakumna urtetsuak —, ¡ori dogu etxeko ondatzaílea! ¡Órexek galdu ta ondatuko gaitu guztiok! ¡Órek!...

— Egon zaitez isilik, Mari — egin eutsan Martin'ek —. Tabakoñia sano gustetan yat, baña askozaz maiteago dot etxeko bakea.

— Ba, etxean bakerik izaten ezpaldin badogu bere, beroñek tabakoñia eukiko dau — esan eban Iñaki'k, eta ariñiketa baten etxerako bidea artu eban.

— Andik lastertxo, ara nun agertzen dan bera, eskuan, ari biko kordelaren antzera biur-biur eginda, tabakoñi zati bat ekañela.

— Beutso, aita — esan eutsan —, nik ez dot éretan, baña alan ta guzti bere, ondotxo dakit zelango lañitasunak eta estu-
-aldiak izaten dituan beroñek, tabakoñi barik aurkitzen dane-

tan, eta atzo, nire anayeak agindu eustana erosi nebanean, bidebatez, beroñen lañi aldietarako euki egian, beste libelarentxo bat artu ta ekañi neban.

—Bai, —urten eutsan atzetik Batxi'k —neuretik ostu izango zenduan bear bada oñitxo ori.

—Ara, Batxi, ez nagizu eragin gero. Zu okeña zara, bai, ta beste guztiak bere, zure antzekoak dirala uste izaten dozu beti.

—¡Ken ortik!—esan eutsan Mari'k Batxi'ri—ba, zure egitadak txatxañak baldin badira, ainbatean dabiltz arekin, zure burutasun biuñi oñeik bere, ta.

—Tira, tira, naikoa da; itxi orain alde batera bañiketa guztiak—egin eban Martin baketsuak, bere pipeari ke moltso andiak atara erazoten eutsazan bitartean. Zuk, irakurle, euskaldunak tabakoñiari dautsen maitetasuna norañokoa dan bazenki, ondo ulertuko zenduke uñean, zelango atsegiñezko pautadak ataraten eutsazan Martin'ek bere pipeari ordu aretan.

—Ondiñokañen gogoan daukat, nere amak, Jaungoikoa'k bere aldamenen ondo gorderik euki dayala, zelango berba onakaz aldendu gura izaten ninduan tabakoñiaganako grina edo ekandu gaizto onetatik. Baña aueztik osagile askori, ta baita idazle batzueri bere, parke eskatuta gero, ez dot nik uste tabakoñiaganako zaletasun oneri, gizonik beartsueneri bere, iñori kalterik egin barik, munduan izan leiteken atsegiñik andiena eskuratuten dautsan tabakoñiaganako zaletasun bizi oneri, «grina txar» izenik ezañi leikionik.

—Zure aitaita,—esaten eustan—munduan izan eiken gizonik baketsuena, isilena ta onena zan; bere gogaro ona ta aurpegi argia ausiko eban bear eta nekerik ez zan; baña iñoiz tabakoñi barik aukitzen baldin bazan; agur bere bakea, bere isiltasuna ta bere gogaro on guztiak; infernua zirudian ola-koetan etxeak, ta beretzako atsegiñik ez zan iñon bere izaten.

Ez yakon inoiz ez asafe ez aurpegi ilunik ikusten pipea beteteko lagin euki ezkerro.

¡Berkak berba dira bai, ta aizeak daroaz! Lobeak, adibide oneri biurfa arturik, edo atzekoz aufera yafirik, bere kolkorako egin eta esan eban: «Nire aitaita zana ain tabakofi zalea zan ezkerro, zer onen bat izan bear dau aurki, efitako gauza dan bedar ofexek».

Ta eskuratu al izan nituan lenengo txanponekin, ontza bat tabakofi ta pipa bat erosi nituan, ta alboko gaztañadira igonik, antxe emon neutsan nire gogo oso-oso aitaitia zanaren *jaungoikotxoari* burua guztiz galdu arte, opio zale baten antzera.

¡Nire aitaita zanak gaur lurpetik bere burua yasoko baldin baleu!

— ¡Ederto, ene lobe, esango leuskit! —Guraso zaaren zaletasunari ain maitekiro eutsiten dautsazula yakiteak, sano poztuten nau.

Ofebestez, bakeak egin zirean Martin'enean. Ordurako eguzkia guztiz ostendu zan, ta eguna oso beroa izan baldin bazan bere, ordu aretan, giro edefa zan kanpoan egoteko.

—Arin-arin afalbu bear dogu —egin eban Martin'ek— ta beingo-beingoan oeratu; biar, eguzkiak bariko berotu baño lenago, zuek Bilbo'ra yoan bear izango dozue kereizokaz, eta, beraz, goiz-goizetik yagi bear izango dogu guztiok. Tira ba, goazen etxera. Yone bere an egongo da afariagaz gure begira ta.

—Ara, Martin, —esan eutsan andreak bere gizonari— emen-txe afaldu geinke obeto.

—Bai, bai, —erantzun eben aita semeok batera— etxean bero andia izango dogu ta.

—¡Yone!—ots egin eban Mari'k, etxerantza burua biurturik.

—¡Zer bear dau, ama? —erantzun eban etxeko leyotik neskatila batek.

— Afaria gertu dagonean ekañi, ementxe afaldu bear dogu ta.

— Ontxe-ontxe noa—yardetsi eutsan neskatiñla gazteak,

Beingo-beingoan etxetik urten, eta eskuetan bae bat, zapi zuri-zuri ta garbi-garbi bategaz ondo estalduriko sardiña ontzikadea, ta arto bigun-biguna, urtea lakoxe goñia eroazala, kereizetaratu zan.

Yone, amartzotzi ogei urte inguruko neskatiñla liraña zan, eguna baizen argia ta sagaña baizen goñia.

Galbaya azpikoz gañera yañi eban arbola azpian, zapi edo traputxoagaz berau estaldu, ta mai arin aren gañean sardiña—ontzikadea imiñirik, artoa zeatu eban, arto zatiak sardiña ontziaren inguru guztian polito-polito yarten zitualarik, ta Martin'ek maya bedeinkatuta gero, bakerik santuenean, eta pozik andienagaz asi zirean afaiten Etxe-Edeña eritxon besetxeko lagunak.

—Aurtengo kereizok ia-ia batuta daukaguz —esan eban agureak— eta onek sano poztuten nau; baña laster-laster ez dogu ikusiko abade jauna gure etxe ingurutik, eta onexek bene-benetan mindurik dauko nere gogoa.

— Don Jose'k berak ez dau tamal andirik artuko —erantzun eban Batxi'k— txoriok geyago minduko dira aurki, kereiza faltea asmau dagienean.

— Kereizok amaitu ezkeru ez da etoñiko abade jauna goizean—goizean, orain etorten yakun legez, gure etxeko leyoetatik danba ta danba soso ta mikak ilten. ¡Txori añañoak! Txori—maloak imiñi añen bere, piloka ta piloka etorten yakuz kereizetara.

— Ta don Jose aitatu dogun ezkeru —egin eban Mari'k — ¿zer dala ta ez ete da atofi bera, gaur goizean onantza?

—Gaur Kastro aldetik dalako, bere loba indianoari bidera urteteko asmoz—yardetsi eutsan Martin'ek.



ETXE-EDERÁ BASETXEÁ

—¿Gaur dator beraz, bere lobeaz? ¡Asko poztuten nau ofe-xek! ¡Ia zure anayearen bañi izaten dogun!

—¡Jaungoikoa'k gurako al dau! Izan bere, ¡ařitzekoa da gero Mejiko'tik idatzi euskunetik ona, anibeste denporan bere bañi barik egotea! A il egingo zan uréan: bizirik balego ez dago bera guri ofenbeste denporan idatzi barik.

—Olan uste dok neuk bere, Martin. Berak guganako dau-kan maitetasuna ez da iñoiz izan bada-ezpadako edo guzuréz-koa; ba, atzenengo egin ta bidaldu euskun idazkia ezin izan eitekean argiagoa.

—¡Ba! ¡a zelango senidea! ¡txeñenek eroango al dau!—esan eban Batxi'k.

—¡Ene Jaungoiko laztana! egin eban Mari'k ¡Zuk dau-kazu biotza, ene semea!

—Iñoiz bere ez dāusku txanpon bakartxo bat bidaldu ta, ¿zer ardura dāusku guri bera bizi bada ezpada?

—Ni neu beinzat, bizirik dagola yakinda, sano poztuko nintzake - erantzun eban Martin'ek—naiz ta etxe bete uré euki, ta guri ezertxo bere emon ez.

Baña Mateo, don Jose'n lobeaz, ¿Mejiko'tik al dator?—itandu eban Yone'k

—Nik ez dakit, —yardetsi eutsan amak, baña andik ainba-tetik izan bear dau, Indietatik eta aberastuta ei dator seguru bere ta.

—Don Jose'k olango suertea egiteak sano poztuten nau' on-ona da ta - egin eban Martin'ek.

—¡Iso! —esan eban Batxi'k.—Gaztañaditik datoza areik, ¿ez ete dira eurak izango gero?— Bai, bai, an dator don Jose-Éfomako otina aitatu ezker...

—¡Isilik egon zaitez gaizto ori!—erantzun eutsan Mari'k.— ¡Ez dautso ba don Jose'ri otina esaten!

II

Basetxearen ur-urfean gaztañadi eder-edeña egoan, eta izan bere, gaztañadi aretatik zear etoñan kaltzada luze batetik, an etozan mando batzuen gañean abade jauna ta bere loba Mateo, ta euren atzetik, beste lau oñeko batzuen bizkañean, indiano-aren pardelak eta ostantzeko traste guztiak.

Don Jose, Gueñes eriko Andra Mari deritxon eleizako abade nagosi edo pañokoa zan; agura lodikote ta guztiz argia, bai berba egikeran, eta baita, bere itxura guzti-guztian bere; ta onez gañera, oso biotz onekoa. Indianoa bañiz, ogetaka urtedun mutil gazte masala.

Etxe-Edeña'n bizi ziran lagunak, eurañ ikusi ta beste barik, an zuzendu zirean bizkor-bizkor eurekana, Batxi gaiztoa izan ezik; onek, nayago izan eban seguru bere, ontzian gelditu ziran sardiñak garbituten gelditzea, kaltzadatik zear etozan-akana yoateko egin bear eban bidea egiten ibiltea baño.

—¿Badaukat ba nik, indianoarekin eta bere osabearekin zer ikusirik ala? Niri ezertxo bere ez dauste emongo ta...— egin eban bere kolkorako mutil biuñi arek.

Pañoko jaunak bere eleiztañak ikusi zituenean, mandoari gelditu arazo eutson, eta bere loba Mateo mutil gazteak bere, beste oñenbeste egin eban.

—¡Kaixo, Martin! ¡Agur, Mari!—egin eben osaba-lobak bateratsu.

—Añastion daukela don Jose ta...—erantzun eben guztiak.

—Baña jaun dotore au—esan eban Mari'k —jaun dotore au dogu, arako?...

—Mateo ber-bera—erantzun eban bereala indianoak. ¿Ez da gomuta, ondiño sei urte baño ez dira ba-ta, Etxe-Edeña'ra

bere osabearekin arnaridun arbola guztieri arika egiten mutil oker bat zelan etorten zan? Axe ber-bera nau ba ni, Mari.

—¡Ene Jaungoiko laztana! ¡Zelan burura etofi alangorik! Berofen tayua ikusi ta...

—¡Ze berori ta berori ondo! Itxi beiz beofoz mendien! ¡Ez genduke bear ontxe besterik orixe baño, mutiko koskora nintzala ezautu, ta orain, nori ta niri, berorika berba egiten astea baño! ¡Yone bai egin yakela neskatila galanta!

Neskatileak bere begi edera luzean yosi ebazan, eta bere matralak, laosaren antzekoak ziran matralak, klabelin gofien antza artu eben beingo baten.

—Inaki sano azi da—gañeratu eban indianoak—. Eta Batxi ¿nondik nora dabil ba?

—An goragotxoan gelditu da...

—Ori, beti izan dan lango mukea izango da oraintxe bere, ¿ezta? Oregaz ordu saminak ikusi dodaz nik nere mutiko denporan; beti ibiltzen zan niri ernega arazoten.

—¡Ta zelan ibili da berori Ameriketan?

—Ez egin niri berorika berbarik, Martin, ni ez naz berori zu baño.

—¡Ezin baña inondik inora zuka egiten oitu!

—Ba niri ofetara berba egiten oitu bearko dau. Amerika aldetik ondoto ibili naz. Nire efi maiteari dautsodan ongina, ta nire osaba urtetsu oneri nere biotzak gordetan dautsan maitetasunak olan eraginda, lauko batzuk eskuratu al izan nituenenan, ez askorik, baña bai emen itxuraz bizi izateko lagin irabazi al izan nebanean, banoa Gueñes'era esan neutsan nere buruari, ta nire osabea baño, nire aita izan dan agura aregaz, zoriontsu biziko naz antxe, berari guztitariko laztanak egiten dautsodazala, ta ofetara, berak niri guraso barik, umezurtz gelditu nintzanean egin eustazan laguntasunak zelanbait ordaintzen dautsodazala...

Baña ¿zer diñot? Eurok gaur Bizkai guztiko aberatsenak baño aberatsagoak dira aurki.

—Bai, Jaungoikoa'ri eskerak ez yaku arto zati bat falta ta.

—¿Zer diño berořek Martin? ¿Eta yaraunsia?

—¿Nondiko yaraunsia aitatuten dausku berořek, don Mateo?

—¡Baña beti don eta berorika niri! Berořen anai zanaren eskutik artu izan dabena,

—¡Ene Jaungoikoa! ¡Il da bereaz!—egin eben Martiñe'k eta etxeko guztiak negari sano emoten eutsela.

—Ez neike ziur-ziur esan —erantzun eban, zerbait ařituta, indianoak— makaltxo bere baebilan eta...

—Orduan il da ¿ezta? Esan eguiskuzu egi-egia...

—Bai; oraintxe urte bi dirala il zan—erantzun eutsen Mateo'k. Baña ¿zelan izan leiteke eurok ezer bere ez yakitea? Eta yaraunsiz euroi berak itxiriko dirutza pilo galantari ¿zer egin ete yako?

—Arapau ebenak gorde dagiela nai daben lekuen—esan eben bateratsu Martin'ek, bere emazteak eta aren seme-alabak.

--Ene adiskideak —esan eban maitekiro abade jaunak — il diranakaitik samintasuna ta biotz naigabea eukitea ona izaten da beti; baña samintasun eta naigabe onek diruagaz arintzen dira zelanbait. Biar ekingo dautsagu arazo oneri, gaur ez za-goze zuek onetariko kontuetan yarduteko gertu ta.

Artean, gaba bere iluntasunezko mantar baltza zabaltzen asita egoan. Indianoak eta abade jaunak alegiñak egin zituen Etxe-Edeřa'ko lagunak samintasuna berba maitekořakaz zerbait arintzeko, ta alkařeri agur esanaz, batzuk artu eben ibařerako bidea, eta basetxekoa besteak.

—¡Il da! ¡il da!—esan eutsen Batxi'ri bere guraso ta anai -ařebak kereizetara eldu ziranean.

—¿Eta aberastuta egoan? ¿Eta yabegei itxi gaitu?—itandu

eban Batxi'k yoranez, ta bere ba'fuko poza ezelan bere estaldu edo ostendu eziñik.

—¡Batxi! —egin eban Martin'ek, bere berberi ga'raztasun guztia eza'firik— ¡Biotz gaiztoduna zara gero!

Martin baketsu ta onutsaren aboan berba ga'ratzak, sumiñaren antza artzen eben beti.

Beingo baten ostendu ziran Etxe-Ede'ra'koak, euren base-txearen ate ostetik.

Iñori bere ez yakon kereiza konturik burura eto'ri, ta u'fengo goizean, txafiak euren kortatxitik urtenda, zanpa-zanpa kereiza guztiak ederto iruntsi ebezan; ez yakon iñori bere, kereizokaz Bilbo'ra yoañ bear ebanik gogoratu, bada, Martiñenekoak, Ameriketari il yakon senidearen gomutaz bakar-bakari ebiltzan egun aretan; Batxi'k, aren eriotzeagaz betiko aberastuta geldituko ete zirean itanduten ebalarik, eta beste guztiak ba'riz, naigabearen naigabeaz negar egiteko.

U'fengo goizean eguzkiak urtenkoxe, an yoyan kaldatzatik gora, Etxe-Ede'ra'ranta abade jauna.

Ez eroyan berak, alakoetan oi eban legez, bere eskopetea lepoan, eta bere loba Mateo beragaz bateratsu yoyan.

Basetxera eldu ziranean, a'feko egunean ba'ño arte geyagogaz eta euren ezbe'arak itxi eutsen samintasuna arean malkalduago ebela aurkitu ebezan etxeakoak, ta beraz, diru autua entzuteko gertuago.

—Tira, Martin—esan eban indianoak— gaur, atzo ba'ño arte geyagogaz aurkitzen ditugu eurok, ta urari bere bidetik yoaten izteko gertuago. Bedo'ren anaya zanak bere yauransi yaube itxi zituen ezkerre, nai ta naiez, eta laster ga'ñera, aren eskutiko dirutzea euron eskuetara ekarteko bideak egin bear ditu, diru o'fegaz pobre asko ta askori lagundu leyo berorek ta.

—Zuzen dago, Mateo jauna—erantzun eutsan Martin'ek.

--Tira ba; onezkero euroi egi uts-utsa esateko ordua dot, eta or doa: Beroñen anaya zanak ogeta bost mila pesora eltzen zan dirutza galanta itxi eban.

—¡Ogeta bost mila peso!—egin eban Batxi'k— ¡¡Ta sekula ez euskun berak txanpon bakartxo bat bere bidaldu!!

—Beroñen anayea zerbait diru gorde zalea zan... Baña il diranak bakean itxi daiguzan eta bizi diraneri gudua egin dagioegun. Eta guk gudua egin bear dautsegunak beroñen anaya zanaren diruekaz era txafean edo lege bidetik kanpora ibili diran oñeik dira. Beroñen anayearen azken guraria artu eben oñek Mexi'ko guztitik zabaldu dabe, eurak bete-betean egin dabela il zanaren naya, ta iñok bere ez dau uste, eñi aretan, diruak onako bidea artu ez ebenik.

Ainbat ariñen idatzi bear dautsoe beraz, eta bide okeñetik eurekandu dituen diruak eskatu, eta ez-entzun egiten baldin badabe bañiz, topauko dogu alegiñez euren goña kentzeko bide zuzena.

—Ederto, Mateo jauna; beroñek agintzen dauskun guzti-guztia egingo dogu.

Etxe-Edeñan ez egoan idazkirik egin al izateko modurik, eta abade jaunak Batxi bidaldu eban eurenera, antxe Mari Antoni eritxon andreak, bere neskameak, idazki bat egiteko bear ziran papela ta beste tretxu guztiak emon egiozan.

Batxi alper-alpeña zan, guztiz nagia; baña diru kontua erditik ebiñan legez, eta berentzako zati batzuk izango ziralakoan bigañenez agindu beañik ez eban izan, eta aida baten eldu zan abadearenera.

Mari Antoni emakume urtetsua zan, oso ona ta esku-zabala; geyenetan ez dira olangoak izaten abadeen neskameak.

Eta ¿zegaitik ez dira abadeen otseñak geyenetan olangoak izaten?

Ba euren ugazabak sañ askotan onak ta esku-zabalak lañegikeriz izaten dirala ta, ainbeste on eta limosna egiten ikusita amorua artzen dautse ofetariko izakereari, ta eurak zekeenak eta esku itxiak egiten dira. Abadeen neskameak oso zurak eta zerbait ikasiak ezpaldin badira, beartsueri gorotoa artzen dautse, euren ugazabak areri laguntzen dautselarik beartasunean sartzen dirala ikusiaz.

Batxi'k oso pozik eta berba egiteko gogo andiz aurkitu eban aurkitu bere Mari Antoni.

— ¿Tira, emongo daust ori?— esan eutsan Batxi'k andreari.

— Bai, bai, oraintxe emongo dautzut, ene semea; baña egon zaitetz apurtxo baten, eta ez egizu ofenbesteko urduritasunik agertu.

— Baña ni emen luzaro egon ezkeru, nire begira gelditu diran abade jauna eta don Mateo artegatu egingo dira aurki.

— Ez, mutil, ofegaitik ez yake areri asaratuko, biok on utsak dozuz eta! Nik ogei urte daroadaz abadearenean neskame, ta inoiz bere ez dautsat arpegi txarik ikusi. Ba Mateo, ¡aor beste bat! Mutil ori zeruko aingeruak baño ohea dozu. Ta bera ¿zelan azi ta loditu dan ikusi dozu?

— Ta esan beist, beroñek yakingo dau eta, ¿aberastuta etoñi da bera?

— ¡Bai, ene semea, bai!... ¡Arek ekañi dituan gauzak ikusi bazeinkez!... Etoñi saitez bere etxangura ta antxe ikusiko dozuz zelango gauzak ekañi dituan.

Batxi ta Mari Antoni, ondiñokañen indianoaren pardelak alkañen gañean egozan etxangu baten sartu ziran.

Mari Antoni aretariko pardel batzuk zabalduz, bañuan agiri ziran gauzak mutilari erakutsi eutsazan. Gauzok, geyenak beintzat, uñe ta zidañezko bitxiak ziran.

Aberastasun arek ikusiaz Batxi'ren begiak yauzika asi

ziran, eta euren lekutik urten bear yakela zirudien. Mari Antoni bañiz, poz-pozik eta afo-afo agertzen zan.

—Au, —esan eban, atzamañagaz baster baten egoan pardel bat erakutsiaz, zazpi giltzen azpian itxita dago. Oratu egiozu, ia, eskuagaz luřetik kiñadarik eragiten dautsazun—gañeratu eutsan iribařez.

Batxi'k oratu eutsan pardelari esku biekaz, baña ezin izan eban inñondik inñora luřetik yaso. Atzera pardela bere senean itxi ebanean, alango diru zarata edo ots dinditsua atara eban, ta diruen ots arek ikara andi bat eragin eutsan Batxi'ri bere bařuan, eta atsoari bañiz, baře gozatsua atara eragin eutsan.

—Tira, Batxi, urun zořoa ez da ori gero!

—¡Etxe onetako zoriona, Mari Antoni!—egin eban Batxi'k.

—¡Benetan, ene semea, benetan! Baña zuenera bere elduko da gure zorion onen zatitxoren bat uřean. Jaungoikoa'k danontzako emoten dau. Mateo'k eta abade jaunak uřezko biotza dauke, ta zuek etxeko lege egiten zaree eurentzat. ¡Zuek bear izanean ikusi ezkerro ez zindukeze bertan bera itxiko!

Mari Antoni'k esaten eutsana entzuteko astirik bere ez eban izan Batxi'k, alango urduritasun ikeragaři bat ebilkion bařutik. Bere biotzean buřuka izugařia sortu zan.

—Tira, ene semea, ¿zer deritxazu pardeltxo ořeri?

¡Ogerlekoz beterik egongo da aurki pardeltxo aztun aul

—¡Ogerlekoz beterik! ¡Edeřa zara, ene semea! ¡Ontzaz beterik bai, ez ogerlekoz, mutil!

Batxi dardara baten yaři zan; alderdi guztietarantza begiratu eban, eta Mari Antoni'regana zuzendu zan amořuz beterik.

—¡Batxi! ¡Batxi!—ots egin eban norbaitek lipar atantxe eskilera aldetik.

Batxi'k lu'ari ostikada itzal bat emon eutsan, begirakun izugaria egiten eban bitartean, eta Mari Antoni ta biok, an yoan ziran ots egin eban lagunari bidera urtetan.

Lagun au Iñaki 'zan.

—Egunon, Mari Antoni—esan eban Iñaki'k.

Eta bere anayeari auxe esan eutsan:

—Arin ibili zaitez, anai; abade jauna eta don Mateo zeure begira dagoz aspalditik eta. ¿Abade jauna mezea emoten arin yoan beara dala ez dakizu ala?

—Egon daitezala nai baldin badabe, ondiño ez da berandu bere ta—esan eban Mari Antoni'k. Txankada baten gosaria gertu bear dautzuet ementxe.

—Ez, ez; eskefik asko, Mari Antoni—erantzun eben anai biak era batera.

—Okela zati batzuk yan, eta pitxarkada bat txakolin edan barik ez zaree atzera Etxe-Ede'ra biurtuko oraitiño. Indianoaren eto'erea ementxe alka'egaz ospatu bear dogu.

—Beste egunen baten ospatuko dogu, Mari Antoni—erantzun eban Iñaki'k. Dato'ren domekan, eleizarantzat gatozanean orduan artuko dogu pozik bere, orain eskintzen dauskun gosari gozo ori.

—Tira ba, tira ba, nigaitik ez egizue estutasunik izan; baña ondo dakizue zelango borondate onagaz egingo neuski-zuen nik, agindutako ori, aitonen semeak zaree, ta guraso onak seme onak izaten ditue. Baña Iñaki'ri indianoak eka'firi-ko aberastasunak erakutsi barik ez zaree yoango.

—Ez, ezin geintekenez luzaroagoan emen egon—esan eban Batxi'k, mai gañean agiri ziran papel eta idazkia egiteko zerak arturik.

Eta anai biak arin-arin artu eben Etxe-Ede'ra'rako bidea aldatz gora.

III

Ipuin au nire adimenean sortu arazo dozun gogozko putz maitagaíi oírek, oraintxe ikusiko dozu, leku batera ur bila yoan, eta ura dagon tokira bein eldu ezkeru, egaíia kentzeko gauza dan zer ori eskatutea zelan aitzu leitekeon bateri.

Udabaíiko arasti eder-edeíra zan.

Gueñes'eko abade jauna eta bere loba Mateo, Etxe-Edeíra basetxearen ur-uíean egoan munatxo baten egozan, besoak euren eskopeta kañoyetan ezaíita eukezalarik, alboko egitxo bateko bee aldean eizea usmaka ebiltzan txakur eder biri begira-begira.

— Osabea — egin eban Mateo'k — «Txurik» eta «Azkar» ek erbiaren aztaíena galdu egin dabelakoa daukat. Onezkero berandutxo bere bada ta, berori ez dago ordu onetan kanpoan ibilteko moduan, eta etxerako bidea artu bear gendukela uste dot.

— Zuzen zagoz — erantzun eutsan abadeak, Gaur bide an-diak ez doguz egin, baña alan eta guzti bere, gorputza ebainduta daukodala susmetan dot. Mateo, onezkero nireak egin dau, txapon bat bere ez dot balio. Agureak eizan ibilteari laga egin bear dautsagu onezkero.

Osaba-lobak eiza-izkiluak lepo gañean artu, ta munatik beerantza egiten asi ziran txakuíeri ots eginda gero. Txakuíen zaunka-otsak alboko gaztañadian entzuten ziran; bide zabalaren alderdi bietara zabaltzen zan gaztañadi eder-eder aretan.

Mateo auíetik yoyan, eta ibaíerantza egiten eban bidea alde batera itxi, ta Etxe-Edeíra'rako bidea artu eban uste-uste barik beronek.

— ¡Zer bai, ¿Etxe-Edeñá'ra goaz ala?—esan eban don Jose'k.

—Bai, osabea. Antxe yañiko gara apurtxo baten, eta ur pizka bat edango dogu, egañiz eñetan nago ta.

Abade jaunak iribañetxo bat atara eban ezpan artean, eta auxe esan eutsan bere lobeari:

—Tira, tira, Mateo, zuk mundu bi ikusi izan dozuz; baña olan eta guzti bere, ez dozu ondiño zure biotzaren leratasunak zelan estaldu bear dozuzan ikasi.

—¿Zer dala ta esaten daust ori ene osabea? -egin eban Mateo'k bere arpegiko azala zerbait goñituten yakon bitartean.

—Nik ez dodalako uste, Martin'enean, muna loratsu ta bedartsu onetan baño leku oberik aurkitu al izango dogunik gure gorputzeri bear daben atsedena aukeratu al izateko, ta ezta ta, emen txitian-pitian eta edozein lekutatik urteten daben ura baño beste ur obeagorik an topau geinkeanik bere.

—Bai, baña emen...

—Bai, zuzen zagoz—esan eban abade jaunak iribañe artean—emen ez dago Etxe-Edeñá'n dagon Eñebeka gaztea, Eliezer'eri zula luzatuteko.

—¡Ene, osabea!...

—Tira, noiz edo noiz autortu egizu. yakin bear izango dan gauzea da ta, Yone ikusteañen yoaten zarala zu egunero Etxe-Edeñá'ra. ¿Eta badauko oñek zer ikusirik ala? Bera neskatiñla ona da, ta zuk daroazuzan asmoak bide onekoak dira aurki.

—Ara ba, osabea, orain artean ez dautso ezer bere esan, baña beroñen susmo oñek artezak dira.

—Agureak urin-uriniñetik bere, susmetan dogu gauzea.

—Marti'en alabea maite-maite dot eta berak ni bere maite nauala uste dot. Parkatu beist orain artean isilik euki baldin ba dot nire biotzeko maitetasunaren bañi.

—Ez, ene semea, niretzako ez da egon orain artean esku-

tauta maitetasun ori; zuk zure biozkadak estaldu al izateko gaiztakeririk ez daukazu ta. Baña ¿zegaitik ez dautsazuz zure asmo zuzen oreek Martin'eri eta Mari'ri azaltzen, eta batez bere, aren alabeari?

— Ba eurak ain zintzoak eta leyalak diralarik, neure biotzak darabilezan maitetasun oneik eurei atzaldu ezkerok, ezetza emongo daustelakoaren bildur nazalako... Ni aberatsa naz, osabea, ta eurak landerak.

— Oregaitik ez da ardura, gixona; ez egizuz eragozpen oreakaitik zure asmoak luzaroagoan estaldu. Zuk zure aberastasanakaz egiten dozuna egiten danean, ¿gauza okeña ete da ba, aberatsa izatea?

— Ez, osabea, baña... denpora gitxi bañu eurak izango dira ni gaur nazan baño aberatsagoak eta orduan...

— Orduan... eurak ez; eurak orelango gauza bat esateko zuzenegiak dira ta, baña esango dabe bear bada, min gaiztoa, daukenen batzuk, zu diruaren atzean zabiltzala.

— Zuzen dago, ene osabea. Ez yat niri orain artean orelangorik burura etoñi.

Abade jauna eta bere loba Mateo auñera ta auñera yoyazan Etxe-Edeña'rako bidean.

Martin, bere andrea ta onen seme-alabak artayoñan ziar-duen etxearen oste aldeko solo baten.

— ¿Ze bañi, Martin?—egin eutsan abadeak etxejaunari.

— Ez dago bañirik ba, don Jose jauna—erantzun eutsan baseñitañak—. Gaur izan da Inñaki Bilbo aldetik, eta Ameriketako koñeoa artean etoñita egon danañen, ez da guretzako kartarik izan. Beraz, itxaropen guztiak galduta daukaguz arazo oretan.

— ¿Zelan egongo dira itxaropenak galduta ba?—gañeratu eban Mateo'k—Aiko-maikoetan ibili barik zirt edo zart egin bear da beingo baten, eta arazo aztun au bein betiko atundu.

—¿Eta guk zer egin geinke ba? Yáuransia guri emoteko agindua artu ebenak gorde dagiezala ordu onean ogeta bost mila ogerlekook, eta on egin dagioela. Gu, gure landertasunagaz ondo pozik geldituko gara beintzat.

—Zuzen dago egon bere, aita - esan eben bateratsu Iñaki'k eta Yone'k.

— Nik bere, alantxe uste dot— gañeratu eban Mari'k.

— Au ezin leiteke esárea erakutsi barik baketan yasan— egin eban Batxi'k, eta eskuetan eukan atxuía luíera amorú biziz yaurtirik, beronegaz arto landara batzuk erdi-erditik ausi egin zituan.

—¡Oker ori!—egin eban Mari'k—¡Zu langoak izango gara guztiok! ¡Dirua baño beste Jaungoiko'rik ez daukazun órén antzekoak izango gara, ene semea! ¡Zeken órék! ¡Zekenkeriak galtzen ba zaitu zu! ¡Zekenkeriak yausi eragingo zaitu, ta baitegiratu!...

— Tira, Mari, tira - egin eutsan abade jaunak bakeak egiteko asmoarekin—itxiozu, oraingoan ez dauko ainbeste éru euki bere ta. Mejiko'ra baíro idaztea alpeñikakoa dala ikusten dot; angoak nire ustez ez dabiltz asmo on-onarekin eta; baña, au dala ta, itxasoz beste aldera batonbategin egin bear izango dau; diru órékaz zer ikusi daukonen batek. Martin'ek urte askotxo bere badaukoz eta, ezin egin izango dau alango oster luzea; Batxi'k baíz ez dauko eskolarik.

—Berea da érua— esan eban Mari'k—guk egin izan doguz alegin guztiak eskolea irakasteko, baña alan eta guzti bere, berak A E I O U bere ez dau ikasi. ¡Ez dauko onetan bere aáabearen antzik! Koitada onek ez dau izan beste maisurik Iñaki baño, ta oraintxe alegindu da berau eskolea ikasten. Ikasten asi ta beste barik egiten ditu ziríbiro apain eta guztiz ikuskañiak.

—¡Boo! esan eban Batxi'k—. Ori, don Mateo'ren aúean eskolarik ez dakiala esaten lotsa dalako da.

—Yonen arpegiko margoak bizitu egin zirean, eta abade jaunak bere lobeari begirada maitekoía zuzendu eutsan.

—Ondo egiten dau—gañeratu eban Mari'k. Ez, zeu langoa izango da, iñoiz ez dozu gura izan...

—Tira, Mari, naikoa da. Ori onezkero aitzuta dago—esan eban abade jaunak—. Ta zu Iñaki, ¿gertu al zagoz itxaso zabaletan sartzeko?

—Abade jauna, nire gurasoak nai baldin badabe, munduaren azkeneraño yorateko bere gertu nago...

—¡Ene, don Jose jauna!—ots egin eban ama samurak—. ¡Nire biotzeko seme maitea itxaso asaratu ofetan sartu!

—Mari zuzen dago—gañeratu eban Martin'ek—; itxi gizonari beya dabilan lekutik ibiltan.

—¡Ez zaiteze koldar'ak eta odol bakoak izan, Jaungoikoar'ean!—esan eban Mateo'k. Itxasoan ariskuak baldin badira ¿ez ete dira arisku goñiak legoíean bere? Jaungoikoa'k lake-tzen daben arte ez da iñor bere itoten. Eta Jaungoikoa'k nai izan ezkerro bañiz, katilokada bat ur naikoa da gizona itoteko. Nik iñoiz entzunda daukot gizon bildurti bateri yazo yakon au: Gizon bildurti bat bizi ei zan aldikada baten, eta itota il bear zalakoaren ikareak guztiz kikilduta eukan. Ez eban etxetik iñora bere urtetan, eta azkenean etxe bañuan garbi-ontzi baten eukan uretan itota aurkitu ei eben. ¿Ez dozue bein bere ipuin au entzun?

—Zuzen dago, Mateo jauna—egin eban Iñaki'k—. Entzun abestitxo onek diñoana:

Eriotzaren bildur eroak,
Ez daust hapere aultzen gogoa;
Jaungoikoa'ren agindu barik
Aren altzoan iñor ez doa.

— Tira, aita, berorék nai baldin badau, aida baten yoango naz Ameriketara, ta baita, egundoko ariñen atzera etorri bere, ogeta bost mila ogerlekokaz; emen ainbeste beartsu goseak ilten dagozan bitartean, an gure diruokaz alagalan bizi diran maltzur arek gure lepotik bañe egiten ari dirala yakiteak, bañu guztia irakiten nauka ta.

— Zuzen zagoz egon bere, ene semea—esan eban Martin' ek —Mari, ¿ta zuk zer diñozu ba?

— Nik ¿zer esan neinke? Zuk ebasten dozuna ontzat artuko dot... Jaungoikoa'k eta Karmengo Ama Birgiñeak yabon dagiela nere biotzeko seme kutun au

— Tira, ebatsita dago—egin eban abade jaunak - Ameriketara osterea egiteko bear diran zer guztiak gertau, ta beingo baten urten dagiala arantza Iñaki zoliak.

Andik zortzi egun bañu urten eban urten bere Iñaki'k Amerika alderantz, Bilbo'n ontziratu, ta, aldean bear zituan agiri guztiak eroazala, ta baita, abade jaunak eta don Mateok egin eutsezan oar'ak gogoan ondo arturik. Osterea bear zan legez egiteko dirua bere, onek emon eutsen.

IV

Iñaki Ameriketara urten eta andik ile batzuetara, Etxe-Edeña'ko lagunak, mai baten inguruan yesařita egozan, morokil ontzikada bat aŕean ebela, gosaltzen.

Baseñitar leyal eta on aren aurpegieta naigabearen loratza nabaitzen zan; Yone'k guztiz galduta eukan bere matraletako margo gořia, Mari ta Martin, atsotu ta aguretuta aurkitzen ziran oso, ta, etxeko guztiak itun eta oldoztun agiri ziran.

—Ene alabea —esan eutsan Mari'k neskatila gazteari— ¿zer dala ta ez dozu yaten?

— Yaten dot, amatxo, yaten dot.

—Ez dozu arean esnerik artu.

— Ez daukat gogorik, amatxo.

—Tira ba, ene alabatxo, yateko gogorik ez dagonean, yatekoa osakaitzat artu, ta begiak itxita yan egin bear da derigořean; gogo barik bere iruntsi. Yaten ez dabenak bada-kizu zer daukan atzetik, yan barik ezin leiteke iñor bizi. Baña, ¿zer dozu, ene alabea, ain itun eta yateko gogo barik ibilteko?

— Alpeřik itanduten dautsazu —esan eban Martin'ek— Mateo gaizorik dago bai, ta bera bere gaizotu egingo yaku azke-nean ibili ta ibili.

— ¡Eta benetan gaizotuko yaku, ta il bere egingo yaku ořetara yařaituten baldin badau! ¡Tira, ene alabea, yan egizu; ara zein gořoa dagon esnea! Nai baldin badozu ařautza pare bat priřidu, ta ekařiko dautzudaz.

— ¡Ez daukot baña arean bere gogorik, ama!

— Baña, ene alaba kuntuna, Jaungoikoa guztiz Altsua da, ta Mateo, Aren laguntasunagaz, beingo-beingoan osatu, ta laster eskonduko zaree elkařegaz, eta gaurko samintasun

eta ituntasun guztiak bein ta betiko amaituko dira orduan.

—¡Ai, ene amatxo maitea! ¡Mateo ilten baldin bada, ni bere aren atzean ilgo naz aurki!

—¡Mateo ilgo dalakoa daukazu! Ez egizu ofelango tentelkeririk esan bere egin, osagilearen eritxiz onezkero oberantza doa ta. ¡Zer ba! IzkiluATEGAZ eizan egiten yoan, eta oartu barik izkiluari tiroak urten, eta gaizki zaurituta asko ta asko ikusi izan ditugu orain artean bere, ta gero ederto, guztiz ederto osatu egin diranak. Egia esateko, lcnengotan ez genduan uste onean urtengo ebanik; baña Jaungoikoa'ri ta Karmen'go Ama maitagafiari eskerak, onezkero ez dago Mateo'n osasunagaz zetan artegatu.

—¡Au bere andia da gero!—egin eban Batxi'k, eskuetan eukan kolarea mai gañera amofu biziz yaurtita gero. —¡Beti indianoaren kontuekaz zabiltze! ¡Ez daukozuez miñean indianoaren ipuñak baño! ¡Bereun mila txerenek eurekin batean eroango al dabel!...

—Batxi—egin eutsan Martin'ek—, ez zenduke zuk indianoaren izena aitatu bear, berari ongi naya agertuteko baño.

—¡Ongi naya! ¿Ezer emoten dauku berak guri ala?...

—Guk merezi dogun baño geyago bere emoten dauku; bear dogun guztia ez dauku iñoiz bere ukatu berak.

—¡Zeken uts-utsa da bera ta...

—¡Batxi!—egin eutsen danok bateratsu sumiñez beterik.

—¡Diruz aboraño beterik egon, eta gu emen bear ta bear daragoyogula ikusi, ta ezertxo bere emoten ez daukun ofek!... ¡Izkiluari uste-uste barik tiroak urten, eta alboan yo beaŕean buru-buruan yo baldin baleu ta garaun guztiak eguzkitara atara!

—¡Isildu zaitez, aŕen, maltzur ori, alango ori!—egin eben danak batera biotzeko sumiña azalera agertu barik ezin gorderik.



Izugarizko ondameudiak erabili zitnan ni Mejiko'rantza
etorteko aukeratu neban itsasontziak

—Ez naz isilduko.

—Zuk ekañiko dozu azkenean gure galzoria; zure maltzurkeriak ondatuko gaitue—esan eban Mari'k. Zure anayea gure artetik itxaso zabaletatik urindu zan agunetik geyago, ez dauskuzu egun baten bere baketan itxi. ¡Ene biotzeko semea! ¡Bera gure artean balego oba izango genduke uréan!

Eta Mari koitadeak negarari emon eutsan; Yone'n begiak bere, negar malkoz edo anpuluz bete ziran, eta Martin bakesuari bere, burua bular gañera makurtuta, bere espanetatik berbatxo bakar bat atara barik, begiok negar anpuluz busti yakozan.

¡Zori gaiztokoa bere gurasoeri negar anpulu bakar bat atara eragiten dautsan seme boitz gogoñekoa!

Gosaltzeari itxi egin eutsen, ondoñikaren ontzikadea morokilez beterik egoanaren.

Biotz naigabeak yateko gogo guztia kendu eutsen, eta euren eskuetatik kolarak yausi eragin.

—Kereiza arbolen ondoan agertu zan gizon batek, ots egiten ebala esan eban—¡Martin! ¡Martin!

Martin'ek leyo batetik erantzun eutsan.

—¿Bañirik bai aldago ba, Mikel?

—¡Bañi onak benetan! Atzo, saran batzuk saltzen izan nintzan Bilbo'n, eta zuentzako Indietatiko idazki edo karta au emon eusten. Bart berandutxo bere etofi nintzan eta, ezin izan neban berau zueri ekarten onano eldu.

Martin, bere andrea ta semeak an yoan ziran ariniketa baten Mikel'egana, ta onek, Martin'eri karteaz luzatu eutsan.

Martin'ek izugarizko deadar alai eta pozkor bat yaurti eban idazki azala begiz yo ebanean. ¡Bere seme Inaki'ren eskutikoa zan idazki aura!

Mari'k arapalada baten kendu eutsan bere gizonari idazkia

eskuetatik eta, gañeko azala aítaz eta urduritasunez beterik bein eta baíz irakuí egin eban, negar anpuluz busti ta mosuka erabilten eban bitartean, eta Yone'k bardin egin eban gero, bere amari idazkia defigoíean kendurik,

Eta ¿zelan ez eben leyatsu ta maitekiro laztanduko semearen, eta nebearen eskutik etoían papel zati aura, ain yoran andiz ainbeste denporan itxaroten eben papel zati aura, ta beraren itxaropenak amaika negar gaíatz eragin eutsena?

Batxi maltzuák bakaíik erakusten eban sorgoía, bere guraso ta aíabeari ordu aretan ain leya andia emoten eutsen idazki aren aúean.

—Baña, ondiñoKaren ez dakizue gure anayeak yaraunsia bere eskuetara ekaíi al izan daben ala ez, eta ¿zetarako edo zeri datoz zarata ta pozaldi oírek?—esan eban Batxi'k.

Baí, Batxi biotz txarékoa zan, bere aítak, saíi esaten eban legez. ¡Bere anayea bizi edo il zan yakiteak ez eutsan bapere ardurarik emoten! ¡Bere guraso ta aíabearen poza ta alaitasunaren zioa ulertu al izateko, Ameriketan egoan anayea guztiz aberastuta egoala yakin bear eban lenengo! Bera aberatsa ezpaldin bazan ¿zer ardura eutsan berari bere anayearen biziagaitik?

Batzuen eta besteen esku artean ibilita gero, azkenean, lortu eban Martin'ek bere semearen karteá beregandutea, eta biotza taupadaka ebilkiola, zabaldu egin eban.

Ona karteak zer íñoan:

«Mejiko'tik, eta abar.

Ene guraso ta anai-aíeba maite-maiteak: Eurokándik al-
dendu nintzan ezkerotzik, zoritxaía izan da nire lagun eta bidekide alde guztietatik.

Itxaso zabal órétan izugarízko ondamendiak erabili zituan ni Mejiko'rantza etorteko aukeratu neban itxansontziak. Zeru ta itxaso artean zori ta naigabe gogoák yasanda gero, ta Mejiko'ko itxas kolkoa arápatu gendualako, gure samintasun guztien azkenera eldu gintzazala uste izan genduanean, Jaungoikoa'k ondiñokaén beste naigabe estuago batzuen bidez aztertu nai izan eban gure eroapena. Itxasoko olatuak legóreko mendi yagien antza arturik, indar izugaríz igituten asi zirean; alderdi guztietako aizeak bultz egiten eutsen bildurkiro gure ontziari; zerua, odei baltzez ilundu zan, trumoyaren ots ikaragafia entzun genduan, eta tximista izukor batek ausi zituan gure ontziaren masta guztiak. Ekaitzari aúre emon nairik ibili gintzazan luzarotxoan bizirik urtengo genduaren itxaropen guztiak ia galduta geunkazala, ta azkenez, birindu egin yakun ontzia, ta nire ontzikiderik geyenak antxe bertan aurkitu eben betiko atsedena, itxaso zabalaren ondar bildurgaríetan.

Lipar atantxe, Jaungoikoa'ren, eta nire amatxo maiteak ontziratu nintzan egunean lepotik ezafi eustan gutunean ikusten neban Karmen'go Ama Donearen izenak, etofi ziran nire adimènera, ta, nire mingañak agin artean aitatu ebazan maitasunez beterik izen bi órek. Au egin nebaneko, uren gañetik ikusi neban ol zati bateri oratu neutsan indar guztiarekin. Ol aren gañean itxas baztaféraño eldu al izan neban; baña nire indaíak aultzen edo makalduten asi zirean, eta ekaitza gerorago ta gogoíagoa zala iruditzen yatan; itxas olatuak trumoyaren antzeko óroak egiten ebezalarik ondartzaren atxen artean apurtzen ziran eduféz beteriko mendi aroak bailitzazan. Munduari nire azken agúra emoteko gertu nintzan, bertan izten nituan guraso ta anai afeba maiteen gogorapenak nire adimen osoa tamalez ilunduten eben bitartean, eta onetan, ara non

ikusten dodan txalupa txiki bat niganantza etorten, bere bañuan itxas ertzeko biztanle batzuk etozalarik.

Txalupa aretan etozan lagunak, nik izan nituan afiskuak goitu bear izan zituen gizon biotz samurđun arek, euren bizia galtzeko zorian etoři ziran neugana, itxaso asaratuaren ortzetatik neure bizia gaizkatuteko asmoz. Atzenian imiñi neban oña mundu bañiaren lufean, baña jzelan urten neban legořera, ene Jaungoiko laztana! Zutunik egoteko gauza ez nintzala; eskuak odolez beterik neukazala eta, egin nebazan indar eta alegiñen bidez besoetako azur guztiak euren lekue-tatik urtenda neukazala.

Txalupako lagun on arek ol eta abar batzuekin oe antzeko zer bat egin eusten eta antxe yaři ninduen euren eřiskara eroateko. Eřiska aretan aurkitu neban benetako gaizotegia; bertoko biztanleak egin eustezan ardurak eta osakayakaz zuzpertz nintzan, ta neure indarřak arean gogortu yatazanean maitekiro eskartu nebazan, eta betiko agur egin neutsen, eurek an itxi bearřak emoten eustan naigabea gorde eziñik, negar ugariak egin nebazala.

Uri andi onetara eldu ta beingoan nire osabearen diruak artu zituenekana aurkeztu nintzan eta ez neuke nai, yazo yatanagaz zuen biotzak sumindu; baña ez ninduen gogo onagaz artu. jGuzurtitzat bota ninduen, gogorkeriz artu, ta nire lepotik iñon diranak esan zituen bapere eřuki barik!

Baña ondiñokařen gizonen zuzentasunean itxaropen apuřen bat badaukat, eta Jaungoikoaren arteztasunean bařiz, areago. Goiko Jaunaren arteztasunak ez gaitu ezelan bere utziko. Nire itxaropen zati bat zuek bere izango dozue aurki, ta ni ondiño bizi nazala yakiñik, baketu beite ta poztu zuen biotz ori, emen nago ni ba, ia guztion zoriona lortuten dodan lanari ekiteko gertu ta.

Don Mateo'n lagun guztiekana aurkeztu naz, eta danok dagoz niri laguntasuna egiteko gertu, batez bere, gueñestar bat; onek, bere semea banintzake bere, ez ninduan obeto artuko. Semetzat artu nau bete-betean gure eritar onek. Ez dot nire lan au beingo beingoan burutu al izango, dirua esku artean daukenak su ta gar ekingo dautse nik egingo ditudan garbitasun guztiak alpeñik galtzen; emen badagoz ba, or dagozan legez, orielango beañak egin al izateko bideak eta.

Iñaki'ren ustean don Mateo ta bere afebea alkañekin ez-konduta egozan afezkero, ta bere kartan, abadeakin, Mari Antoni'kin eta Mikel otzaradunakin gomutaten zan, eta baita beste auzokide batzuekin bere, eta idazkiaren oñean eskatzen eutsan bere amatxori Karmen'go Ama Doneari bere alde asko ta asko eregututu egion.

Ondo ekian Iñaki'k bere amak zelango maitasuna ta dedua eutsan Karmen'go Ama Birjiñeari eta.

—¡Ene biotzeko seme laztana!— egin eban Mari'k bere gizonak karte irakuri ta beingoan—. ¡Zelango arisku artean ibili izan dan nire biotzeko kutuna! Baña ibili ta ibili Ama Birjiñeak atara dau arisku goñi guztien artetik...

—¡Bai, ta zetarako!—esan eban Batxi gaiztoak agin artean, aurean egozan guztien biotzetara sumiña ta naigabea eroanik.

—¡Batxi!—esan eutsan Martin'ek bizi-biziro, bere aurpegi baketsuan iñoiz ikusi ez zan lango bizitasunakin—. Ez dira oriek, ene semea, zure gurasoak irakatsi ta emon dautzuezan leratasunak!

—¿Gure erukañiak? egin eban Mari'k negaari emoten eutsala—. ¡Onexek galduko gaitu, eta bera bere, baitegi ilun baten ondatuko da azkenean!

V

Indianoak ondiñokařen, eizan ibili zala artu zituan zauri ikaragaíak guztiz osatu barik eukazan, eta oeratuta egoan. Batxi gaiztoa saí yoaten zan ba, bera ikusten, etxekoak atara-ko beren-beregi bidalduta.

Etxekoentzako baíz, egunean baño egunean ayuí latza-goia erakusten eban mutil gaizto onek. Bere gurasoak, Mari'k eta Martin'ek, naigabe ta neke samiñak iruntsi bear izaten zituen beronen ayuí ořeekin, eta guztiz makaldu ta zaartuta agiri zirean.

Abadeanean oster, beste gizon bat zirudian Batxi'k; abade jauna ta bere etxeko lagun guztiak ikeratuta egozan mutil aren izakeran nabaitzen eben aldakuntza andia ikusita, eta Mari Antoni'k ezekian beronegaz zer egin bere; ařastietan, askari edeřak gertetan eutsazan, eta etxeko bařukotasun guztiak era-kutsi bere bai. Oso samurkiro artzen eban mutiřa, ondu zalakoan.

Bizkai'ko lur osoa ta batez bere Enkartaziñoetakoa aldi-kada baten odolduta erabili eben Oñaz eta Ganboatařen den-poretako Etxe-Toře bat egoan eři aretan, Jara izenetik ezau-tzen zana, eta eguzkiaren azken izpiak Etxe-Toře ořen ormak argituten ebezan ařasti baten, basetxearen inguruan egoan berezitxoan'ke moltso andiak ikusten zirean, eta bertan ikaz-kiñak lanean ebiltzanaren ezaugaři ziran ke moltso onek.

Izan bere, onetariko ikazkin batek afaria egiten inarduan, eta lapikoa zainduteko zeregiñetan eragoyon; beste iru edo lau gizonek, aregandik uřin barik, eguřak txikituteñ ziarduen.

Berezitxoaren goi aldean txaola bat ikusten zan, iru eguřez egiña, eta iraz eta bedařez estaldua.

Aretariko ikazkin bat txaola bañuan sartu zan. Beronen auřetxoan bai amatauko ez amatauko egoan sua bizkortu eban, eta suaren gañean ezařita eukan burdiñezko lapikoari irakin erazo eutsan, bañuan eukazan babak egosi eitezan. Gero, arto uruna, ura eta gatza aspil batera botarik, oreka egiten asi zan burdiñezko agalau bat sutan berotuten zan bitartean. Orea egin ebanean, opil txiki batzuk biribildu zituan eskuagaz, eta burdiñezko agalauan eře zituan. Zeregin guzti oneik amaituta gero, yagi zan, eta esku biak tururu gizan aboan yařirik, arnasa beteagaz ots egin eban:

—¡Aaauuu!

Bere lagunak arek egin eban deadar antzeko bat egiñik erantzun eutsen berari uřinētik, eta euren aizkorak bereziko areitz enbořetan tinkaturik txabolarantza zuzendu ziran.

Euren afari ariña eginda gero, ta bakotxak bere pipakadea amaitu ondoren, an egozan ikazkinak zer egin ez ekiela; baña txabola auřetik ez ziran iñora bere igituten, txabola atean yezařita egozan.

Gaba ilunduten asi zan.

Ikazkiñak isil-misilka ziarduen alkařekin izketan, eta urduritasun andia nabaitzen zan euren artean.

Bereziaren azpi edo bee aldean gizon bat agertu zan alango baten, eta arek bere, txabolarako bidea artu eban.

Gizona eureka eta etořala ikusirik, poz andia artu eben ikazkiñak.

—Tirozue—esan eban etorpaři zan gizon arek—ez daigun astirik galdu; nik beingo baten biurtu bear izango dot etxera, nire faltarik asmau ez dagien eta.

—Ia ba, goazen - erantzun eben ikazkiñak.

—¿Izkilurik badakazue?—itandu eban arako gizon arek.

—Ez, guk ez dakagu izkilurik.

—Or konpon; nik pistola bi ta aizto bat badakadaz beintzat eta.

—Gu ostuten goaz, baña ez iñor ilten.

—Bakotxak berak nai dabena egin dagiala-esan eban izki-ludun gizon arek—baña jez, daigun astirik galdu! Bidean egingo dogu berba, ta zelan sartu ta etxe baruan zer egin bear dogun yakin dagizuen, argitasun guztiak egingo dautzuedaz.

Egur-ikatz bustia eskuetan artu, ta onegaz baltzitu ebezan arpegiak lapuřetan yoyazan gizon arek, eta berezitik ořetara urten eben.

—Eta Txomin, ¿zer dala ta ez dator gugaz ba?—itandu eban ondiño nor dan ez dakigun gizon arek, len lapikoa gorde-tan ikusi dogun gizon aregaitik, afalduta beingoan bere pipea biztu, eta atzera bere lekura bigurtu zan gizon aregaitik.

—Lapikoa zainduten gelditu da —erantzun eutsoen ikazkiñak— eta batonbat or gelditutea ondo etořiko yaku izan bere. Gañera, emen gelditzen danak ez gaitu gitxi lagunduko gure arazo onetan.

—¿Zelan ba?

—Abestuten ekiñaz.

—Eta ořegaz ¿zer ba?

—¿Ořegaz zer ba, diñozu? Ořetara, Etxe-Edeřa'ko lagunak eta Kastro aldetik goizaldean datozen ogidunak abestiak entzun ezkerro, ikazkiñak berezian dagozala uste izango dabe.

—¡Buru argia daukozue gero!

—Orain diru asko aukiteko alegiñak egin daiguzan ba.

Andik ordu erdira edo, gařatz entzuten ziran ikazkin baten abestiak arako berezi aretan.

Bere mando gañean beste lagun batzuk legez yařita etořan Gueñes'eko Kazinta eritxon ogindunak, bere bidekide-eri auxe esan eutsen:

—¡Txomin zorioneko ořek dauko umorea, gazteak! Uře, txindořaren gizan beti abeska ekiten dautsa gizon ořek.

—Zozoak beleari buru-beltz — egin eban atariko ogidun batek — zeu bere ez zara makala ořetan, itsu batek baño kanta geyago dakizuz eta. Asko da gaur zu ain isilik etortea.

—Abadearenean, eta Etxe-Edeřa'ko Martiņenean yazoten diran negargarızko gauzak buruan sartuta daukodaz bai, eta ez daukat kantetan etorteko gogorik. Bařu guztia ilunduta daroat.

—Zuzen zagoz, edozeņen gogoa ilundutekoa da izan bere, indianoaren eta Etxe-Edeřa'koen ezbeařak kontuan artu ezkerro. Mari ta Martin seme barik geldituko dira oraintxe, ziur-ziur.

—¡İnaki gizajoa! —esan eban Kazinta'k negařari emonaz— ¡Zelango eriotza samingařia eroan bear izan daben aurki, itxaso asařatu donga ořetan! Bizi nazan artean negar ta negar ekingo dautsat mutil zindo aren eriotzea dala ta. Nire bulařetatik artu eban lenengoz titie, eta seme bateri baño maitasun andiagoo eutsan nire biotzak berořeri. ¡Eta Mari koitadea!... Seme ořen eriotzeak kendu bear dautso berari bizia.

Ogidunak isil eta itun euren bideari yařai yoyazan, eta bitartean, Txomin'ek, abeska eragoyon alboko berezian.

Gueņes eřiko abadearen etxea intxausti baten ondoan egoan, eta beste etxeekandik arean aldendurik, leku bakar baten. Ařızko etxe galanta ta edeřa zan, jauregi baten itxurakoa ta bere ate gaņean arma-aři dotorea eukan. Etxearen egal baten bařız, eguzki-erlojua agiri zan. Onetariko erlojuak Bizkai guztian ikusten dira, baņa Enkartaziņo alde onetan batez bere, ugari dagoz ondiņokařen.

Eři bedeinkatu onetan aberatsak eta beartsuak goiz-goizetik yagiteko oiturea dauke, ta gaubeko lenengo orduetan isiltasun eta bake andia nabaitzen da, lagun guztiak lo egoten diralako ordu ořetan.

Lenengo loa izaten da izan bere gozoena, ta ordu ofetan ez dira geyenetan kanpoko zaratak ondo entzuten.

Abade jauna lo egoan, eta Mari Antoni bere bai. Abadearenean indianoa bakañik egoan itxañik ordu aretan, gorputz bañuko beroak ez eutsan loak artzen izten eta.

Txakurak zaunka asi ziran gogor.

—¡Osaba jauna! —esan eutsan Mateo'k, bere gela ondoan egoan beste baten lo aurkitzen zan abade jaunari.

Abade jaunak ez eutsan erantzun lenengotan, lo gozo-gozotan egoan eta.

Txakurak zaunka ta zaunka gerorago ta gañatzago eragoyoen.

—¡Osaba jauna! ¡Osaba jauna! —egin eban bañiro Mateo'k.

Azkenean, abade jaunak erantzun egin eutsan, eta ona Mateo'k berari esan eutsana:

—«Txurik» eta «Azkar'ek» zaunka gogor daragoyoe, eta laba ganeko taletuen, zarata batzuk entzuten dodaz.

—Aizeak eraginda igituko dira aurki, telak, eta txakurak, arek ataraten daben zarateari zaunka ekingo dautse.

Osaba-lobak isildu egin ziran.

«Txuri'k» ta «Azkar'ek» zaunka ta zaunka eragoyoen eten barik.

—Osabea—, esan eban onetan Mateo'k—labearen taletu gañetik esku-eskura dagon yatokiko leyoan zarata itzelak entzuten ditut eta lagunak batek kanpo aldetik indarka daragoyola begitantzen yat.

—¡Ez zaitez bildurtia izan, gizona!—erantzun eutsan abadeak—aizearen zaratea da ta, lo egizu!

—Ikusiko dogu ba—esan eban Mateo'k.

Eta makal egoan añen, oetik yagi, ta zarata andirik egin barik, bere lo gelako leyoa zabaldu egin eban; baña ezin izan

eban ezer entzun ez ikusi, kanpoko aizeak ata iluntasunak ez eutsen izten izan eta. Onenbestez leyoa izi, ta atzera oera-tu zan.

«Txuri'k» eta «Azkar'ek» geroago ta zaunka andiagoak egiten ebezan.

Mateo'k ondo baño obeto entzunten zituan ondiñokañen labearen taletuko zaratak, eta yatokiko leyoa norbaitek igituten ebala zirudion.

—Zaratok nondik datozen ikusi nai dot—egin eban.

Eta izkilua, eskopetea, eskuetan arturik, an yoan zan yatokiko leyo auñera. Yatokian oriozko argitxo bat egoan, Mari Antoni'k bertan imiñita eukana.

Mateo leyo ondora uñeratu zanean, berau otoz-otoan eta indañez zabaldu, ta gizon bat agertu zan bertan.

Indianoak erabili nai izan eban izkilua, baña ez eban astirik izan; eskopetea zatituta yausi yakon eskuetatik luñera lapuñak kanpo aldetik yaurti eutsan tiro bategaz, biñin-biñin eginda.

Lapuñá bat-batera sartu zan etxe bañuan, eta bere atzetik beste iru gizon bere bai. Oratu eutsoen Mateo gizajoari, luñera yaurti, ta aboa surzapi bategaz estaldurik, eskuak eta oñak gogor-gogor lotu eutsoezan.

Gizon gaizkin arek abadearen lotokira zuzendu ziran gero, eta andik Mari Antoni'renera, ta Mateo'ri egin eutsoena egin eutsen oneri bere.

Gero etxean aurkitu eben diru guztia, ta diruagaz batera idoro al izan zituen bitxi ta baliodun gauza oro arapatu zituen Ederto ezautzen eben gizon arek abandearen etxea, ta esku-tuen egozan gauza guzti-guztiak bere, topau ebezan eurak bi-latuteko zer andirik egiten ibili barik. Gero beingo-beingoan ate nagositik urten eben, sartu ziran leyotik ezin izan eben egin, gauza asko aldean eroyezalako, ta iges egin eben kanpora.

Baña Gueñes'ko lagunak batzuk lapurak yaurtiriko tiroak egin eban zaratea oarturik, an agertu ziran izkiluekaz intxausti inguruan, lapurak abandarenetik urtetan eragoyoen lipar atantxe,

—¡Geldi or!—ots egin autsen didarka.

Baña lapurak intxaustiko arbolen artetik, eta iluntasunak atarako lagunduta, ostondut egin ziran, eta igesari emon eutsen.

Gueñes'tarak euren izkiluak erabili zituen, eta aretariko lapur bat zaurituta yausi zan, aldean gauzarik gitxien eroyana atan bere.

Besteak, Kadagua érekearen beste aldera igaro ziran, eta iluntasunak lagunduta, bereziko gaztañadi artean ostondut ziran.

VI

Aurêko atal órétan aitaturiko yazoerak igazita, andik sei-
gañen ilabetera, abade jauna ta bere loba Mateo arasti baten
etxetik urten, eta oía non etozan Etxe-Edeña'rako aldatzetik
gorantza astiro-astiro.

Aldikada baten, bide órétatik gorantza etorten ziranetan,
eskopeta bana eroaten eban bakotxak lepo gañetik dingilizke;
baña oraingoan ez, oraingoan ez ekañen eskopetarik, baña bai
esku artean makila lodi ta sendo-sendo batzuk.

Onetariko makila gogor bat esku artean artu ezik, Mateo'k
batez bere, ezin izango leuke oraingoan aldatzaz gora bide
luzerik egin luñera yausteko arisku barik.

Abade jauna, len ain mardul eta gordin ezautu genduan
abade sendo ta osasuntsua; sagaía lango margo edo kolore
gorizkaduna; bere espan artean iri baírea beti agertzen ebana,
ez da gaur, lengoaren itxurakoa. Uleak guztiz urdinduta agiri
yakoz; mosuko azala oso zimurtua ta zurbil-zurbila, ta baíe-
neko ituntasuna, bere itxura guztian, eta baita berba egikeran
bere, nabaitzen yako. ¡Amaika samintasun eta naigabezko
ordu laíi yasan izan ditu aurki abade jaun onek, bere izakera
guztian órélango aldakuntza negargaía nabaitzeko!

Mateo baíz, ez dirudi lengo gazte masala; arpegiko margo
orizkea, eta bere gorputz guztian oartzen dan makaltasuna,
ikeragaíak dira! Bulaíreko gaizoz yota, gure ondoan saíi asko-
tan ikusten ditugun mutil gazte zurbil eta makañen antza artu
dau sei ilabete onetan Mateo'k bere; gente guztiak euren
ondotik igeska egiten daben mutil gaizo makar órén antz
izugaía.

Abade gizajoak, berak bear dau iñoren laguntasuna aldatz

pike aretatik gorantza egiteko; baña bere lobeia bera baño makarago ta makalago agiri dalako, berak eskintzen dautso oneri beronen laguntasuna, bide latza ta luzea arinago ta erosoago egin dayan. Onelangoak izaten dira izan bere Jaungoiko Altsuaren otsein zindoak, euren gorputzeko makaltasun guztieri uko egin, eta lagun urkoarenak arintzen eta leguntzen ekin.

— ¡Ia, Mateo! Gora biotz auldu ori! — esaten eutsan abade jaunak bere lobeari. Eguraldi edera bere badago ta; alde guztietatik zugatz ori baiak eta lorak baño ez dira ikusten, eta adar bakotxean txori bat kantari agiri da. ¡Alaitu beite zure gogo ori! Lepoa egingo neuke, amabost egun bañu guztiz sendatuta agertu bayetz.

— ¡Ene osabea! — erantzun eutsan Mateo'k — aldameneko gauza ta izaki guzti-guztiak alaitsu ta pozkiro nabaitzen ditut; baña nire gogoa, zure lobearen bañena, itun eta negartsu doa!

— Baña, ene lobeia, itxi egizuz alde batera orain arteko oldozmen ilun guztiak. Zuk orain alaitasuna ta bakea bear dituzu; osasunera etori, ta galdu izan dituzun indarak atzera zeureganderik, gorputz auldu ta yausi orl zelanbait zuzpertu. Ondiñokaren gaztea zara, Jaunari eskerak eta... laster ezkonduko zara, ta orduan danok bizi izango gara alaitasunez eta pozez betebeterik. ¡Zer! ¡Etxe-Edera'raño eltzeko indarik ez daukozu ala?

— Ez dakit ba, ene osabea; araño eltzeko gurari bizia dauko nere biotz makal onek, baña indarak uko egingo daustelakoa daukat.

— Ba, nai ta nai ez auñera egin bear dozu oraintxe. Yone koitadeak ez dauko onezkero gure laguntasuna baño besterik mundu onetan, eta bere neba anker eta biotz gaiztoaren atzaparartetik geronek atara bear izango dogu.

— ¡Aren nebea! ¡A, osaba! Mundu onetan benetako zuzentasunik ez dagon ezkerro ¿zer dala ta ez ete ditu Jaungoiko zuzenak oñelango gizon gaiztoak eta biotz gogoñak betiko ondatzen?

— ¡Mateo! Jaungoikoa guztiz arteza da, ta Aren begiak ondo ikusten ditue ikusi bere, gizonen biuñikeriak, eta baita onen egitada onak, bear diran legez zigortau edo sarituteko. Batxi'k bere egitada gaiztoekaz gurasoeri emoniko ordu saminañak eta naigabe latzak, betiko atsedenera bidaldu zituen senar-emazte zintzo-zintzo arek; baña artuko dau beroñek bere, egon ardura barik, beroñek bere artuko dau egitada deunga oñen ordaña mundu onetan edo bestean.

Onetara, bañiketa ta bañiketa artean yoyazan osaba-lobak astiro-astiro beeko arantetik Etxe-Edeña'rañoko aldatzatik gora.

Etxearen ondoko kerezetara eldu ziraneko, Yone'k uste-uste barik, leyora urten eban, eta eurok ikusi ta beste barik, bere biotzeko poza gorde eziñik, an yoan yaken bidera urtetan.

Ileta soñekoz yantzita egoan neskatila gaizoa... ¡Iletaz gorputza, ta ileta gogoa bere!

Etxe bañura sartzeko agindu eutsen; baña etorpañi zireanok ez eben gura izan etxe bañuan sartu, ta edeñago eritxi eutsen, an kanpo aldean agiri zan zurezko yezarleku andi baten yezañita gelditzeari; etxeke eskileretatik igoteko indar andi-andirik bere ez euen eta. Gañera, izugañizko ikuste edeña egoan toki aretan; bertotik ikusten ziran beeko arana, ta Kadagua deritxon eñeka edeñaren beste aldetiko mendiak, ta aretariko baten, Jara izeneko etxe-toña, giza-irudi baltza bailitzan.

— Eta Batxi, ¿nondik nora dabil ba? itandu eban abade jaunak.



GUEÑES'EKO ABADE JAUNAREN ETXEA